


E39 TORREALTA- LLOBREGAT HILETA MONUMENTUA





ETRS89 koordenatuak: UTM30N:
X=597035 m
Y=4802531 m
altuera=45 m

WGS84 koordenatuak: geografikoak:
Longitudea: -1 48 8.3
Latitudea: 43 22 9.7

Egilea:

Urtea: XIX. mende amaiera.

Kokalekua: Domingotxoneako hilerria (Hondarribia). San Telmo kalea.

Sarbidea: Torreko aldapa.

Tipologia: Hileta monumentua.

Materiala: Batez ere kareharria.

Idulkia/euskarria:

Interes orokorra. 1/5 (Herri mailako garrantzi historikoa).

- Interes historikoa: 1/5.
- Interes artistikoa: 1/5.
- Interes teknologikoa: 1/5.

Babesa:

- **EAE:** EZ.
- **Udal babesa:** EZ.
- **Proposamena.** Udal babesa: Oinarritzkoa.

Kontserbatutakoaren ehunekoa: % 100.

Katastroko erreferentzia: Hiriko lursaila: 9702282 (Udal Hilerria).

Argiak: Ez.

Errotulazioa: Ez.

Testuak monumentuan: MIRANDA // EXMA SEÑORA D^a ANGUSTIAS / ZULOAGA Y ALVARADO / CONDESA DE TORRE ALTA / FALLECIO EL 9 DE MAYO DE 1871 / A LOS 84 AÑOS EN / MADRID // EXMA SEÑORA D^a ESPERANZA / PEREZ DE TAFALLA Y ZULOAGA / CONDESA DEL LLOBREGAT / FALLECIO EL 10 DE DICIEMBRE DE / 1903 // R. I. P.

Egoera: Ona. Antza elementu apaingarri bat falta da gurutzearen transeptuan.

DESKRIBAPENA

Leku garrantzitsuan egokitutako panteoi hirukoitza, hilerriko egungo sarreraren eskuinaldean. Kareharrizkoa da, eta zokalo bat osatzen du alboetako bi hilarriekin batean. Erdian du monumentua bera, lauza handi baten gainean altxatzen dena. Oinarri molduradunak eratua da, eta gainazal lauan dago txertatuta adierazitako inskripzioak biltzen dituen marmol zuriko hilarria. Haren gainean entablamendu mehe bat ikus daiteke frontoi molduradun triangeluar batekin; gainean du gurutzea.

OHAR HISTORIKOAK

Panteoia Llobregateko kondesa Esperanza Pérez de Tafalla y Zuloagak eraikiarazi zuen haren ama Angustias de Zuloaga y Alvaradori lur emateko. Alaba ere bertan lurperatu zuten.

Angustias Zuloaga y Alvarado andrea Hondarribian jaio zen 1787ko otsailaren 21ean. 1819ko abenduaren 8an "Zuloaga-Aundi" Landetxean ezkondu zen Corps-eko Koronel eta Guardia José María Pérez de Tafalla e Iriarte irunberriarrarekin. Torre Altako kondesa, Tabalososko markesa eta Maria Luisaren Ordenako Dama noblea izan zen. 1871ko maiatzaren 9an, laurogeita lau urte zituenean, Madrilen zendu zen Valverde kaleko 6. zenbakikoan zuen etxean, eta hiri hartan eman zioten lur, baina haren alaba Esperanzak Hondarribian eraikiarazi zuen panteoira ekarri zituen amaren gorpuzkinak. Egun biek hartzen dute atseden Hondarribiko panteoian. Hiru alaba izan zituen, María de la Concepción, Esperanza eta Sofía, adin hurrenkeraren arabera.

Hondarribian, 1841eko apirilaren 28an, Francisco Noguera eskribauaren aurrean sinatutako eskrituraren arabera, alaba Concepcioni utzi zion Torre Altako oinordekotza zegokion tituluarekin; Esperanzari Zuloagako oinordekotza, eta Sofiari Aldapakoa eta Civolakoa.

Esperanza Pérez Tafalla y Zuloaga andrea. Hondarribian jaio zen 1823ko maiatzaren 25ean. Montserrateko Bizkonde, Llobregateko Konde eta Armadako Koronel José Mansorekin ezkondu zen. Ezteiak Hondarribiko "Zuloaga-Aundi" baserrian egin ziren 1847ko azaroaren 27an, Iruñeko Apezpiku Adriani jaunak bedeinkatu zuen ezkontza. Maria Luisaren Ordenako Dama noblea izan zen, oso harreman estuak izan zituen Isabel II.a Erreginarekin. Donostiako Alde Zaharrean zendu zen 1903ko abenduaren 10ean, laurogei urte zituenean. Hondarribian eman zioten lur, amaren ondoan.

BIBLIOGRAFIA

LLOBREGAT, Conde de. Los Zuloaga de Fuenterrabía . – Historiako Errege Akademiaren aldizkaria. 72. liburukia (1918), 48-81. or.



MIRANDA

EXMA SEÑORA D^a ANGUSTIAS
ZULOAGA Y ALVARADO
CONDESA DE TORRE ALTA
FALLECIO EL 9 DE MAYO DE 1871
A LOS 84 AÑOS EN
MADRID

EXMA SEÑORA D^a ESPERANZA
PEREZ DE TAFALLA Y ZULOAGA
CONDESA DEL LLOBREGAT
FALLECIO EL 10 DE DICIEMBRE DE
1903

R. I. P.